

Hiznet 2015-16

**Esteribarko Hizkuntza Normalizazio
Plangintza Estrategikoa.
Prozesu parte hartzailea**

Egilea: Izaskun Uriarte Etxeberria

Tutorea: Aizpea Otaegi Mitxelena

Aurkibidea

0. Abiapuntua.....	3
1. Datu geografikoak.....	4
2. Udalerria eta Hizkuntza Normalizazioa.....	5
2.1. Historia pixka bat.....	6
3. Plangintza zergatik?.....	7
3.1. Plangintza estrategikoa.....	9
4. Gure eredua.....	10
4.1. Eraldaketa.....	10
4.2. Perspektiba sistemikoa.....	11
4.3. Pertsonen protagonismoa.....	12
5. Metodologia	
5.1. Metodologia parte hartzailea.....	13
5.2. Reflect ikuspegi metodologikoa.....	17
6. Prozesuaren nondik-norakoak.....	19
7. Esteribar.....	21
7.1. Diagnostikoa.....	23
7.1.1 Euskara Zerbitzua.....	23
7.1.2 Biztanleria.....	23
7.1.3 Datu soziolinguistikoak.....	24
7.1.4 Zenbait esparruren diagnostikoa.....	24
7.1.5 AMIA.....	30
8. Plan Estrategikoa 2016-2019.....	32
9. Bibliografia.....	47

0.Abiapuntua

Sakontze lana honen egileak Esteribarko Udaleko Euskara Zerbitzuan dihardu 2010. urteaz geroztik. Esan genezake, urte hauetan garatutako hizkuntza plangintza, neurri batean udal agintarien utzikeriaren ondorioz, eta benetako hizkuntza politika ezak bultzaturik, Euskara Zerbitzuaren jardunak nolabaiteko inertziaz funtzionatu duela denbora luzean.

Une honetan, egoki jotzen da orain arteko ibilbidean geldialdi bat egitea. Geldialdi hori baliatu nahi da orain arte garatutako lanaren gaineko azterketa bat egiteko, ongi egindakoak baloratzeko eta hutsunean non dauden antzemateko baita hobetu beharrekoak identifikatzeko ere.


Esteribarko Euskara Zerbitzuak, urteko normalizazio Planak egin ditu orain arte . Orain, ordea, uste dut unea dela Esteribarko euskeraren egoeraren diagnostiko osatua egiteko eta datozen urteetarako helburu egingarriak zehazteko, lau urterako Plan Estrategikoaren diseinua, alegia.

Plan horrek, baina, ez du izan nahi Udaleko Euskara Zerbitzuaren fruitua soilik, prozesu parte hartzaile baten ondorioa baizik. Izan ere, eta batik bat pasa den urtean gertatutako aldaketa politikoaren ondorioz, Esteribarren zenbait prozesu parte hartzaile abian jarri da, euskararen ingurukoa barne. Horrek guztiak esan nahi du talde eragile bat osatu dela ibarrean, Euskara Batzordea, orain arte existitzen ez zena. Bada, sakontze egitasmo honetan, Esteribarko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Euskara Batzordeak elkarlanean abiatutako prozesuaren bitartez garatu duten Plan Estrategikoa azaldu nahi da.



1. Datu geografikoak

Esteribar Nafarroako iparraldean dagoen udalerria da. Eremu zabala da, 143m2 hartzen baititu, Iruñeritik Nafarroa Beherako mugaraino. Udalerrri konposatua da eta hogeita zazpi herrik osatzen dute, horietako asko oso biztanle gutxirekin. Azpimarratzekoa da ibarreko biztanleriaren %26 azkeneko hamar urtean Iruñerria ondoan eraikitako urbanizazio batean biltzen dela, Ollokin, alegia.



Esteribarko Hizkuntza Normalizazio Plangintza Estrategikoa. Horixe da, hain zuzen ere, egitasmo honek hartu duen izenburua. Bada, lehenik eta behin, azter ditzagun izenburua osatzen duten elementuak.

2.Udalerria eta hizkuntza normalizazioa

Zer dela eta aukeratzen dugu udalerria hizkuntza normalizaziorako?

Larrañagak, Egiak eta Amunarrizek (1984:15) berebiziko garrantzia ematen diote udalerriri euskara biziberritzeko orduan:

“Herritarrekin duen harreman-maiztasuna kontuan izanik, udala betidanik, lehen mailako erakunde administratibotzat jo izan da. Euskal Herriko eskualde gehienek fisionomiak ere horretara bultzatzen du, biztanleriaren gehiengoa oso sakabanaturik baitago udalerririk desberdinetan zehar. Udalen garrantzia handia dute Euskal Herriko bizitza soziopolitikoan. Garrantzia horrek berak, sekulako erantzukizuna ezartzen die gure Udalei, euskararen normalizazio linguistikoan.”

Iñaki Arrutik, Hiznet-eko ikasgaian argi azaltzen duen moduan, hizkuntza normalizazioa bideratzeko unitate naturala udalerria da. Hona hemen zenbait argudio:

- Herritarrarengandik gertuen dagoen ingurune geografiko, soziala eta instituzionala da.
- Ingurune pribilegiatua da, bertako egoera soziolinguistikoa ezagutu ahal izateko.
- Planifikazioaren ikuspegitik, diseinu kontrolagarriagoak ahalbidetzen ditu.
- Mugimendu sozialekin lankidetzara antolatzeak aukera hurbila ematen du.
- Erdiko kate-maila osatzen du: alde batean goiko erakundeetatik datozen araubideak eta irizpideak daude, eta bestetik herri mailako harreman-sare zabala (herritarrak, erakundeak, elkarteak, taldeak eta horien guztien asmoak eta eraginak).
- Euskal Herriko lurralde antolaketaren unitate oinarritzat da.
- Familia, eskola, lana, administrazioa, aisialdia, kirola,... planifikazioaren esparru edo arlo horiek guztiek herri mailako egitura bat edo beste dute.

Hau horrela izanik ere, euskararen normalizazioa udal mailan bultzatzeko, baldintza minimo batzuk bete behar dira, pentsaezina baita euskara “borondate onez” soilik salba daitekeela. I. Arrutik adierazi bezala, hasteko eta baldintza nagusi bezala, borondate politikoa jarri behar genuke. Udalek –eta beraz, osatzen duten alderdi eta zinegotziek— euskaldun jarduteko borondaterik ez badute, hartuko diren neurri guztiak folklorismoan amiltzera deituak daude.

2.1.Historia pixka bat

Arrutik, 80.hamarkadako udaletako hizkuntza plangintzak aztertu zituen eta ondorioztatu zuen planteamendu metodologiko haiek ez zeudela hain urrutik gaur egun egiten direnetatik:

- Udal barneko euskararen normalizazioa eta Udalerriko bizitzaren normalizazioa bereizi baina biak plan beraren barruan txertatu.
- Herriko bizitza soziala gizarte-sektoretan banatu. Honakoak: irakaskuntza (ikastetxe, akademia, euskaltegi...); erakunde administratiboak; solas, kirol eta kultur talde eta elkarteak; alderdi eta sindikatuak eta herri-mugimenduak; lan mundua;merkataritza: denda, taberna, diru-etxeak eta gainerako zerbitzuak; profesio liberalak; herriko komunikabideak; gizarte-laguntzetarako zerbitzuak;... Arlo horietako bakoitzean kontsentsuaren bidea jorratu (hitzarmengintza).
- Arlo edo sektore horietako bakoitzean, euskararen egoeraren diagnosia egin, egin daitezkeen ekintzak edo kanpaina pentsatzea, urrats berri bakoitzaren jarraipena eta kontrola.

Halaber, oso herri gutxitan jarri ziren praktikan *benetako* Hizkuntza plangintzak.

Arrutiren ustetan:

"Udaletik kanpora eta gizarteko bizitza euskalduntzeko egin diren entseiu gehienek ez dute arrakastarik izan: lokalistegiak izan dira, ez dute segimendurik izan eta ukitutako sektoreen partaidetzarik gabe planteatu dira"

1990ko hamarkadan ere aldaketa gutxi. Arrutik honela laburtzen du:

"Planifikazio-lanari hertsiki helduta, ordea, herri gutxitan dago hizkuntza plangintza bat (lehengo adibidearekin jarraituz, herri gehienek, ordea, arau subsidiariok badituzte). Plangintza bat diogunean, herriko hizkuntza egoera diagnostikatu, lehentasunak jarri, lehentasun horietan eragiteko programak prestatu eta gauzatu eta horiek ebaluatu ditugu. Are gehiago, hori ziklikoki eginda, eta urteko kudeaketa plan batekin /.../ Herri gehienetan, ekintza-sorta bat izan ohi da plana. Ekintza-sorta horrek, ordea, kasu askotan, plan batek eskatzen dituen hainbat urrats ez ditu betetzen, eta ondorioz, desegokia izan daitekeen urte batetik besterako inertzian bihurtzen da."

1999. urtean Eusko Jaurlaritzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onetsi zuen. EBPn-k hainbat aldaketa ekarri zituen udalerrietan egiten ari ziren planifikazioetan. Ziur aski bestelako koherentzia eskaini zien . EBPnK

ekintza berriak abian jartzeko bai, baina ordura arteko lanaren kasuan inertziak astintzeko ere balio izan zuen.

Hamahiru urte geroago "ezinbestez adostu beharreko helburua izan zen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) berrikuspena, lanabes baliotsu hori XXI. mende hasierari begira findu eta egokitzeko". Eta hortik sortu zen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), datozen hamar urteetan EAEko udalerrietan garatuko den hizkuntza politikaren neurri proposamenak jasotzen dituen.

Jakina denez, hori guztia EAeri dagokio, Nafarroan hizkuntza politika eza izan baita orain arte ezagutu duguna ala beste era batera esanda aurkako hizkuntza politika izan da azken urteetan Nafarroako Gobernua kontzienteki aurrera eraman duena. Hizkuntza normalizatzeko neurriak hautatu beharrean atzera jotzekoak izan dira behin eta berriz hartutakoak. Esan genezake, hizkuntza politika erasotzaile horren aurrean, Nafarroako Toki Entitateetako Euskara Zerbitzuak (NUETS) izan direla, zailtasunak zailtasun, Nafarroako Hizkuntza Politikaren *salbatzaileak*. Sareak eskainitako elkarlanari esker normalizazioari begirako hainbat programa garatu dira Nafarroako Euskara Zerbitzuak sortu zirenetik, orain hogeita bost urte. Esteribarko Udaleko Euskara Zerbitzua ere Sare horren partaidetako bat da.

3. Plangintza zergatik?

Plangintza erabilera anitzeko eta esanahi asko dituen kontzeptua dugu. Gizarte zientzietan erabilia bada ere, oso hedatua dagoen hitza da, modu batean edo bestean bizitzaren eta gizartearen arlo guztietan planifikatu egiten baita. Norbanakoek planifikatu egiten dute, enpresek, erakundeek zein mota askotako elkarteek.

J. Inazio Markok adierazi bezala, plangintza, berez, bitarteko bat da, hainbatetan helburua izan badaiteke ere. Lorpen bati begira erabiltzen den bitarteko edo tresna, gizarte-esparru oso desberdinetan eta ia guztietan aplika daitekeena edo erabiltzen dena. Oso egitura edo dimentsio ezberdinak har ditzake, denboran eta tamainan.


Plangintzaren hainbat definizio aurkitzen ahal ditugu. Hona hemen nabarmentzeko zenbait:

- *Procedimiento mediante el cual se seleccionan, ordenan y diseñan las acciones que deben realizarse para el logro de determinados propósitos, procurando una utilización racional de los recursos disponibles. (Pichardo, 93: 27)*
- *Planificar es la acción consistente en utilizar un conjunto de procedimientos mediante los cuales se introduce una mayor racionalidad y organización en un conjunto de actividades y acciones articuladas entre sí que, previstas anticipadamente, tienen el propósito de influir en el curso de determinados acontecimientos, con el fin de alcanzar una situación elegida como deseable, mediante el uso eficiente de medios y recursos escasos o limitados. (Ander-Egg, 91: 7).*

- *Un esfuerzo deliberado para cambiar una situación que resulta insatisfactoria, mediante una serie de acciones cuya elección y coordinación son producto de un análisis de la situación en cuestión (Collerette, 88: 49)*
- *Aldez aurretik erabakitako interbentzio kontziente baten bidez eta egoera berri bat lortu asmoz, aldatu nahi den gizarte egoera jakin baten gain metodikoki eragitea (Marko, 94: 100)*

Azpimarratzekoa iruditzen zait gogoratzea planifikazioa erabaki bat dela, norbaitek, eragileren batek bultzatutako erabakia. Intentzionalidadea du, xede batekin planteatzen da eta xede horren arabera metodologia bat edo bestea hautatuko da, plangintza ereduaren arabera. Plangintzaren abiapuntuan eragiletza egonen da, bai hasierako sustapenean baita prozesu osoan zehar ere. Gainera, plangintzaren ekintzen eragina jasoko dutenak ikusi beharko da jasole hutsak diren ala eragileak ere izanen ote diren. Planifikazio guztietan, ezinbestean, espazioa, denbora eta pertsonak ageri dira. Espazioa, nonbait aplikatuko delako. Denbora iraupen-tarte jakina izanen duelako eta horrek plangintzaren dimentsioa aldatuko du eta pertsonak, plangintzaren ekintzek hainbat pertsonarengan eragina izanen dutelako, edo hori behintzat bilatuko da.

I.Markok horrela irudikatzen ditu plangintza eta bere elementuak:



3.1.Estrategikoa zergatik?

"Estrategia" hitzaren lehen esanahiak izaera militarra du. "Jenerala" esan nahi duen antzinako grezierazko strategos hitzetik dator. Hitz honen jatorria, bestalde, "gudalostea" eta "gidatu" esan nahi duten erroek osatzen dute (Mintzberg et al., 1997). Estrategiaren kontzeptua nagusiki esparru militarrean erabili da, baita politikoan ere neurri handi batean. Joan den mendearen 60ko hamarkadatik aurrera, estrategia kontzeptua enpresen eta organizazioen kudeaketaren munduan erabiltzen hasi zen, eta mundu hori izan da plangintza estrategikoaren ezagutza gehien landu duen esparrua. Gerora, eta esperientzia horretatik abiatuta, plangintza estrategikoa gizarte mailako interbentzioetan eta plangintzetan erabiltzen hasi zen.

Gurera ekarriz, euskararen normalizazioaren esparruan, esan dezakegu egun, planifikaziorako hainbat metodologia ezberdin erabiltzen ari direla erakundeetan euskararen normalizaziorako garatutako planetan; halere, eta formalki ezberdinak izan arren, eredu horiek guztiek, planifikazio estrategikoen orbitan kokatzen dira.

Hauexek dira plangintza estrategikoaren zenbait ezaugarri (Ander-Eggek 91):

- Oinarrian pertsonen arteko arazoa da.
- Egitearen logikan zentratua.
- Politika eta eragileen parte-hartzea azpimarratzen du.
- Adituekin batera, inplikaturako pertsonak dute garrantzia.
- Planifikazioaren zentroa "gidatze-dinamika" da.
- Helburuak adostasun sozialetik sortzen dira.
- Abiapuntua "hasiera-egoera" da.
- Helmuga "irudikatutako egoera" da.
- Gizarte-sistema pertsonaz osatua dago, balore eta erabaki ahalmena duten pertsonak.
- Planifikatzen duen eragilea errealitatearen parte da, beste eragile batzuek batera.
- Ez dago planaren monopoliorik.
- Planifikatzen duten eragileek ez dute beraiek bakarrik kontrolatzen planifikatutako errealitatea.

Iraupenari dagokionez, plangintzari buruzko literaturan aipatzen dira: epe luzeko ikusmiran egindako plangintzak (3-5 urte), epe ertainekoak (1-3 urte) eta motzekokoak (urte 1). Iraupenak erlazio zuzena du plan horrek hartuko duen dimentsioarekin. Horrela, epe luzeko plangintzaz ari bagara dimentsio estrategikoaz ariko gara. Gure kasuan, 2016-2019 epealdia hartuko dugu kontuan, beraz, iraupenari dagokionean, plangintza estrategikoaz ari gara.

Bestalde, esan dezakegu plan estrategikoak izaera globala duela eta epe luzeko prespektibarekin diseinatzeko dela, bere baitan biltzen ditu programak zein proiektuak.

4.Gure eredia

Esan bezala, hainbat eredu metodologiko daude plangintzak diseinatzeko tenorean. Markok Hizneteko ikasgaian adierazi bezala, guztietatik har daitezke elementuak gurera egokitzeke. Gakoa beti izanen da nondik abiatzen garen. Esteribarko normalizazio plangintza diseinatzeko orduan, bat egin behar dugu Markok proposatutako ereduarekin, geroxeago azalduko dugun moduan, parte hartze elementuan indar berezia jarritz.

Eredu horren ezaugarriak ondoko hauek dira:

- Plangintzaren funtzioa ERALDAKETA sustatzea edota aurre egitea izango da.
- Plangintzaren abiapuntua perspektiba SISTEMIKO eta dinamikoa izango da.
- Plangintzak pertsonen inplikazioa eta protagonismoa bultzatuko du, INPLIKATUAK SUBJEKTU aktiboak izan daitezzen.
- Plangintzaren metodologia HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN eredian oinarrituko da.

4.1.Eraldaketa

Plangintzak gaur egun zentzua baldin badu, eraldaketaren funtzioaren baitan izanen da. Gurera ekarriz, ez dago zalantzarik euskararen normalizazioa aldaketa prozesu bat dela; hau da, normalizazioaz hitz egiten dugunean, eraldaketa prozesuak bideratzeaz ari gara. Hizkuntza-normalizaziorako prozesua aldaketa prozesu bat da; denboran zehar gizartearen baitako hizkuntza-funtzioetan gertaturiko aldaketen aurrean eta gizarte-nahiera berriek bultzatuta planteatzen den eraldaketa. Aracil-ek dioen moduan: *normalitzacio linguistica consisteix a reorganitzar les funcions linguistiques de la societat per tal de readaptar les funcions socials de la llengua a unes condicions 'externes' canviants.*

(Aracil, 1982:23).

Beraz, normalizazioa testuinguru aldakorrean egiten den aldaketa planifikatua da.

Kontuan hartu behar da eraldaketa prozesuetan beti bi elementu edo eragile txertatzen direla:

- Elementu sustatzaileak: proposatutako eraldaketaren alde eragiten dutenak. Esteribarren euskal komunitatea osatzen dutenak, esaterako.
- Elementu mugatzaileak: euskeraren garapenari dagokionez, gure iritzi bera ez duten herritarrak eta eragileak izanen lirakeke. Esteribarren euskaratik urrun samar dauden herritarrak eta

normalizazioaren aldeko neurriak "inposizio" moduan hartzen ahal dutenak, esaterako.

Era honetan definitzen du Collerettek (98:30)eraldaketa:

«Toda modificación de un estado a otro observada en la cultura o estructura de un sistema y que posee un carácter relativamente perdurable».

Collerettek (88: 103-113) azaltzen ditu eraldaketa prozesuetan gerta daitezkeen erresistentziak. Izan ere, eraldaketak berarekin dakar oraingo sistema edo egoeraren orekaren haustea. Gurera ekarriz, orain arte hizkuntzaren inguruan proposatu diren neurriekin edo neurri-ezarekin apurtzea. Egoera berri horrek erantzun naturala sortu ohi du lehendik zegoen oreka mantentzearen alde eta aldaketa mugimenduen kontra. Erresistentzia horiek izaten dira pertsonalitatearekin lotutakoak zenbaitetan (ezezagunari beldurra, estabilitatearen nahia, dagoen egoerarekiko identifikazioa...), gizarte-sistemearekin lotutako erresistentziak (interesak eta eskuratutako eskubideak, zenbait gauzaren izaera sakratua...), eta hirugarrenik aldaketa egikaritzeko moduarekin lotutakoak (pertsonetikiko errespetua, aldaketa integratzeko ezarritako denbora eta bitartekoak...).

4.2.Perspektiba sistemikoa

Gizarte-fenomenoak ez dira sinpleak eta linealak. Errealitate bati dagozkion elementuak elkarren artean erlazionatuak daude, eta guztiek bata besteari eragiten diote. Horrek esan nahi du, interakzioa dagoenez, azpisistemek eta elementuek elkarri eragiten diotela eta , horren ondorioz, aurrean dugun errealitatea ez dela estatikoa izanen, dinamikoa baizik. Esan genezake, sistema elkarren artean erlazionatzen diren eta helburu jakinak lortzeko ekintza batzuk burutzen dituzten elementu-multzoa dela.

Arestian aipatutakoak gure Hizkuntza Plangintzara ekarrita zer esan nahi du? Bada plangintza baten arrakasta ez dagoela bakarrik planaren eragina jasoko duten pertsonen interrelazio edo ahaleginaren baitan, egon baitaitezke beste eragile planifikatzaile batzuk gurekin lehian ari direnak. Lehia horretan, gure plangintzak huts egin dezake, guk ez dauzkagun errekurtsioak besteak baldin baditu.

Hau da, plangintza batek hausnarketa sistemikoan oinarritu behar du. Ikuspuntu horretatik abiatuta, plangintzak onartu egiten du gizarte-prozesu ororen garapenean sortzen diren faktore aleatorioen eta indar kontrajarrien eragina. Argi izan behar dugu hasiera hasieratik prozesu sozialak dinamikoak direla eta plangintza guztiek bukaera irekia izanen dutela. Jakinen dugu zein den gure abiapuntua eta nora joan nahi dugun baina argi izanda beharbada amaiera ez dela guk pentsatutakoa izanen.

4.3. Pertsonen protagonismoa

I.Markoren ereduarekin jarraituz, plangintza batosatzen duten osagai edo elementuen artean garrantzitsuena pertsonak dira. Planifikatzea, hau da, diagnostikoak egitea, helburuak finkatzea, programak eta proiektuak zehaztea eta emaitzak aztertzea, azken finean, pertsonak egiten duten ahalegina da, eta betiere, beste pertsonekin elkarrekintzan. Ez da teknika hutsa, eta zentzu horretan, sarri askotan erabiltzen dugun ikuspegi tekniko-lineala gainditu behar da.

Bestalde, ikuspegi aski hedatu baten arabera, planifikazio-prozesuen prestaketa teknikoan plangintzaren "diseinua" eta "aplikazioa" bi tempus zeharo apartekoak bezala ulertzeko joera dago. Hau da, teknikoak prestatu egingo du, diseinatu, eta ondoren beste batzuek, afektatuek, praktikara eramanez ondorioak 'sufritu' egingo dituzte, aplikatu.

Hala ere, egun, ezagutzaren garapenari esker, planteamendu tekniko-linealak bazterrean uzten ari dira, beste planteamendu dinamiko eta sistemikoagoen alde. Markoren iritziz, "teknikoak" baino ikuspegi humanoagoak, dinamikoagoak eta irekiagoak erabili behar dira. Horrela:

Plangintzaren prozesuan inplikaturako pertsonak ezin dute izan soilik plan tekniko baten objektuak. Bere errealitatearen protagonistak izateko duten eskubidea eta beraien dimentsio humanoa (emozioak, nahiak, ...) kontuan hartzen ez badira, plangintza arrotza egingo zaie eta, ondorioz, ez dute gauzatzeko energia inbertituko. Horregatik, pertsonen inplikazioa bultzatu behar da, inplikatuak plangintzaren SUBJEKTU aktiboak izan daitezten. (Geroxeago ikusiko dugun moduan, Reflect ikuspegi metodologikoarekin bete betean bat egiten duen premisa)

Prestatu-Gauzatu ez dira bi garai ezberdin, elkarrengandik bereizirik eta bakoitzak bere aldetik entitate osoa duena. Berez, prestatzea bada ere gauzatzen hastea. Prestatzerakoan, jada, dinamika pizten dira, mugimendua eta aldaketak hasten dira. Horregatik, hasieratik, prestatetan, plangintzarengandik afektatuek egon daitezten bultzatu behar da.

Plangintza ezin da kontsideratu kontingentzia guztiak aurreikusi eta norabide-urratsak zein ekintzak erabat finkatzen dituen eskema estatiko gisa. Plangintza abiatzeak mugimendua sorrarazten du sistemaren baitan eta, ondorioz, aurreikusi gabeko egoera ez kontrolatuak sortuko dira han eta hemen. Eta fenomeno horiek planaren norabidea aldarazi dezakete. Kasu horietan, inplikaturako pertsonak dira bizi dituzten gertaera berri horiek kontrolatzen ondoen lagun dezaketenak. Horregatik, parte-hartze iraunkorra bultzatu behar da.

Prozesuaren ikuspuntutik ere, plangintzaren sekuentziari jarraitzen badiogu, pertsonak izanen dira beti ardatza eta oinarria, bai prozesuaren hasieran (eragiten), zein prozesuan zehar (bideratzen) edo amaieran (gauzatzen). Askotan, planek ez dute nahi bezalako emaitzak lortzen, ongi prestatuta badaude ere, pertsonen lekua eta pertsonen arteko interrelazioak ez

direlako behar bezala landu. Planen arrakastaren gakoa lotua dago pertsona horien motibazioarekin, inplikazioarekin eta ekintza kontzientearekin planaren diseinuarekin baino. (Nicola Foroni).

5. Planifikazioaren metodologia: eredu parte-hartzailea.

Esan bezala, planifikazio hainbat eredu ezberdin egon arren, ezberdintasunak ezberdintasun, plangintza orok egitura logiko-formala berdintsua izaten duela esan dezakegu, maila ezberdinetan errepikatzen dena (Ander-Egg,91), betiere kasuan kasuko konplexutasun, erreferente teoriko, garapen tekniko eta ezaugarri propioekin.

Horrela, Colerettek eraldaketa planifikatuaren prozeduran lau fase nagusi finkatzen ditu:

1. Aldatu nahi den egoeraren diagnostikoa.
2. Ekintzen planifikazioa.
3. Ekintzen egikaritzea.
4. Ebaluazioa.

Fase hauek ez daude kronologikoki erabat berezituak, mugatuak; hau da, ezin da esan fase bat ezin denik hasi aurrekoa amaitu aurretik. Alderantziz, eskuartze planifikatuaren konplexutasunean, lau aktibitateak (diagnostikoa, planifikazioa, egikaritzea eta ebaluaketa) beti daude lotuak eta elkarri eraginez, eta sarritan gerta daiteke aldi berean gauzatzen aritea horietako bat baino gehiago. Fase hauek aipatzen direnean gehiago adierazi nahi da jarraitu beharreko egitura logikoa eta lan-modua, puntuz puntu eta eskematikoki segitu beharreko bide estua baino. Zentra gaitezen gure ereduan: eredu parte-hartzailea.

5.1. Metodologia parte -hartzaileak

Metodologia parte-hartzaileen izenburupean, gizarte-zientzietako hiru arlotan garatu diren ikerketa-metodologiak dira: soziologia, pedagogia eta psikologia sozialean. Hiru diziplina horiek ez dute planteamendu metodologiko bera baina guztiek betetzen dituzte ezaugarri orokor hauek, horietako zenbait dagoeneko aipatutakoak: (Zesar Martinez, Hiznet)

- Ezagutza eta ekintza uztartzen dituzte. Ekintza praktikoa ez dago ikerketa -prozesutik kanpo, aktoreen praktika izaten baita ikerketaren sakoneko helburua. Horrexegatik, ikerketak edo jarduera aztertzaileak, errealitatea ezagutzea eta ulertzeaz gain, zer egin, nola egin eta nolako zailtasunak dauden ere planteatzen ditu.
- Subjektu-objektu (ikerlaria-ikertutakoa) harremana auzitan jartzen dute, subjektu subjektu eredu defenatzen baitute. Funtsezkoa da aktore sozialen partaidetza ikerketa-prozesuan; ikerlarien koordinazio eta dinamizazioaren bitartez, egileak

errealitate horren protagonista dira. Aktore sozialak ikerlari bihurtzen dira.

- Aktore sozialek, gogoeta kolektiboaren eta informazio-bilketaren bitartez, beren praktika indibidualak eta kolektiboak aztertzen dituzte. Horretarako, beraien praktika dagokion ingurune instituzionalean eta kulturean aztertuz, ingurune horrek ezartzen dituen baldintzatzaile instituzionalak eta kulturalak identifikatzen dituzte.
- Aktore sozialen auto-diagnostikoa burutu eta gero, euren praktika hobetzeko helburuak definitzen dituzte, baita helburu horiek gauzatzeko estrategiak ere. Horrela, ekintza-azterketa-ekintza prozesu irekia abiatzen dute.
- Metodologia hauen instrumentalizazio teknika oso berria da, eta azkeneko urteetan ari da garatzen bi norabide nagusitan: ildo pragmatiko batetik (planifikazio estrategikoa eta hobekuntza/kalitate taldeak), eta ildo kritiko edo eraldatzaile batetik (esku-hartze soziala eta komunitarioa).

Joel Martik eta Oscar Rebollok (2007) hiru ataletan banatzen dituzte prozesu parte hartzaileak: proiektua, protagonistak eta prozesua.

- Proiektuaren inguruan:

Herritarren parte hartzean bi estrategi ezberdin oinarritu ahal dira: legitimizazioa ala eraldaketa. Parte-hartzea legitimazio gisa bultzatzen denean, norberaren jarrerak, helburuak eta interesak indartzea da helburua eta ez horien aldaketa. Parte-hartzea, benetakoa bada, aldaketa sozialak eragiteko estrategia da.

Aldaketak bultzatzeko oinarritzko elementuak pertsonak dira. Pertsonak aldatu ahala, gauzak aldatuz joango dira. Horregatik autoreek babesten dute prozesua eraldatzailea izateko hezitzailea ere izan behar duela: balioak, jarrerak, erlazionatzeko moduak, Joel Martik (2006) azaltzen du teknika parte-hartzaileak gure hirietako demokrazian sakontzeko eta demokrazia eraldatzeko erabil daitezkeela, baina berdin-berdin erabil daitezkeela demokratikoak izateko inolako pretentsiorik ez duten instituzioetan (enpresetan, esate baterako), lankidetzan, negoziazioa (nik irabazten dut, baldin eta zuk ere irabazten baduzu),...horiek dira lehen aldaketak.

Prozesu sozial guztietan oinarri-oinarritzko bi dimentsio dago: bat errelazionala eta beste bat edukiekin zerikusi duena (sustantiboa deitzen dio). Diagnostikoan afinatzea; ekintza egokiak, egingarriak eta eragingarriak identifikatzea... arlo sustantiboari dagokio. Parte-hartzeak horretan ere lagunduko du: errealitatea nork hobeto ezagutu, errealitate hori bizi duena baino? Arlo erlazionala lantzea erlazionatzeko era berriak sortzen laguntzea da: administrazioaren eta elkarteen artean, elkarteen artean eta elkarteen eta herritarren artean ere. Sare soziala sortzea da

helburua. Parte-hartzeko esperientzia bat puntuala izan daiteke ala zerbait iraunkorragoa. Praktika batzuk uneak dira eta beste batzuk prozesuak. Prozesuak egunez egun eraikitzen dira: protagonistek eraikitzen dituzte. Prozesuetan une ezberdinak egoten dira:

Une batzuetan prozesua irekitzea interesatzen zaigu, ahalik eta ikuspuntu gehien bilatzeko eta beste une batzuetan ixtea egokitzen zaigu (sintesia egin, kontsentsuak bilatu, ideia eta proiektu nabarmenenak identifikatu,...). Prozesuak ez dira linealak: ziklikoak dira, espiral formakoak,... Gorabeherak ere izaten dituzte: pausu bat aurrera, bat atzera,... Zirkunstantziak aldatzen dira, baldintzak, protagonistak... Honetaz ohartzea desanimoaren aurkako txertoa ere bada.

- Prozesuaren inguruan:

Proiektuak ondo planifikatua egon behar du, baina era berean malgua izan behar du, behin baino gehiagotan adierazi dugun moduan.

Proiektuan inplikatu aurretik ziurrenik, bi eratako azalpenak eskatuko dituzte parte hartzaileak:

Proiektuaren antolaketari buruzko xehetasunak: zenbat jendek parte hartuko duen, nortzuk (gutxi gorabehera besterik ez bada), bilerak egingo diren, tailerrak,... lan egiteko metodologia zein izango den, zenbat aldiz bilduko diren, zenbateko lana eskatuko duen. Aldez aurretik finkatu eta esan ere esan behar zaie, hala ere, malgutasun nahikoa behar dugu aurreikusi gabeko arazoen aurrean erreakzionatzeko, zailtasunak gainditzeko, errealitate lokalari hobeto egokitu ahal izateko.

Euren paperari buruzko argibideak eskatuko dituzte: haiengandik zer espero den, beren iritzia eta proposamenak kontuan hartuko diren eta nola...

Gatazkari eta kontsentsuari buruzko kultura arrisku bat izan daiteke parte-hartzea bultzatzeko orduan.

Prozesuko partaideek interes eta helburu propioak dituzte: batzuetan konbergenteak eta beste batzuetan dibergenteak. Adostasun eta desadostasun horiek ibilbide osoan zehar agertuko dira, hasieratik amaierara, eta hori ez da txarra. Kontsentsuak bilatu behar dira, baina kontsentsua ez da erabateko atxikipena izango, ezta mugiezina ere. Proposamen eta iritzi guztiak entzun behar diren lekuan entzungo direla ziurtatu behar dugu. Ezin dugu bermatu, ordea, proposamenak bere horretan onartu eta azken dokumentura pasatuko direla, ezta partaide guztien kontsentsua lortzen duten kasuan ere. Proposamenak filtroak izan, izango dituzte:

Teknikoki posiblea den ala ez, ekonomikoki bideragarria den ala ez eta politikoki udalak berea egiten duen ala ez. Edozein kasutan ere oso presente izan behar da proposamen guztiei erantzuna eman behar zaiela eta kasu guztietan eman behar direla azalpenak.

- Protagonisten inguruan:

Prozesu parte hartzailea abian jartzen dugunean hiru jende eta erakunde multzo bereizten dituzte: **gu, gureak eta haiek.**

Gu: lehen-lehenik elkarteak eta antolakundeak edo elkarte eta antolakunde horietan dauden pertsonak agertzen dira. Ezagunak izaten dira, beste esperientzietan egon dira, haiekin egoteko aukera izan dugu aurretik ere.

Gureak: prozesura hurbildu edo erakarri nahi genukeen jende-multzoa. Elkarteak aldatzen dira, baldintzak, protagonistak...

Haiek: gure kasuan euskaratik hain gertu ez daudenak.

Bestalde, esperientziak erakusten duenez, normalizaziorako interbentzio prozesuetan euskara teknikaria izaten da interbentzioaren figura zentrala:

beraren gain erori ohi da, ez bakarrik kudeaketa teknikoa egitearen ardura, baita normalizazioa gaiaren erantzukizun osoa ere. Baina, zentrala izan arren, bere mugak dituen figura da, estatusari dagokionez, botereari dagokionez, irismenari dagokionez. Euskara teknikaria euskara planak burutzeko ardura duen langilea izaten da. Figura hau lidergo komunitatearen erdian kokatzen dugu, erdigunean dagoen lehen lidergo-gunea izango da. Teknikariari, funtzio teknikoak ez ezik, lidergo rola bereganatzea ere badagokio eta, horrekin batera, beste lidergo-guneak sortzeko eta indartzeko eragitea. Bera da bere jokabideekin prozesuaren ikuspegia markatuko duena eta, aldi berean, beste lidergo-guneak sor daitezen eta horietan diharduten pertsonen normalizaziorako lidergo portaerak gero eta sendoagoak gara ditzaten bultzatuko duena. Zentzu horretan, bere jokabidea **lidergo eraldatzailer**a hurbilduko da. Zein dira ba lidergo eraldatzailearen ezaugarriak? Merezki du , nire ustez, lerro batzuk gaiari ematea.

I.Markok egokitu zuen Gil eta Alcoverren eredua (2003). Hona hemen lidergo eraldatzailearen ezaugarri nagusiak:

- Eragin idealizatua: gaitasuna, konfiantza eta konstantzia. Sinesmena erakusten du. Konpromisoaren garrantzia azpimarratzen du. Behar denean posizio hartzen du. Kideen garapena bultzatzen du.
- Motibazio iradokitzailea: etorkizuneko ikuspegi erakargarria artikulatzen du. Egitekoari esanahiaz hornitu eta haratago joatera bultzatzen du.
- Estimulazio intelektual: ohiko moduak eta usteak zalantzan jartzen ditu. Gauzak egiteko berriak sustatzen ditu. Ideien sormena bultzatzen du.

- Banakako arreta: enpatia eta entzuteko ahalmena. Norbanakoen beharrei kaso egiten die. Erronkak egokituak eman eta ardurak banatzen ditu.

Esteribarko prozesuan, lidergo eraldatzailearen ereduak lantzen saiatu gara. Izan ere, jakin badakigu eraldaketa prozesu guztietan, lidergoak garrantzi handia duela. Lidergo eraldatzailearen bidez, parte hartzaile guztien beharrak eta eskakizunak kontuan hartzen dira. Horrela, edozein parte hartzailek erakusten ahal ditu lidergo-jokabideak eta, beraz, aldaketa prozesu bat aktibatu. Gure prozesuan, parte hartzaile guztien nolabaiteko aktibazioa bilatu dugu lidergo eraldatzailearen ezaugarrien bitartez.

5.2. Reflect ikuspegi metodologikoa

Orain arte, metodologia parte hartzaileek, oro har, dituzten ezaugarriak ikusi ditugu. Orain, Reflect ikuspegi metodologikoan zentratuko gara, horixe izanen baita gure Plan estrategikoa osatzeko baliatu duguna, Esteribarko berezitasunetara egokiturik, jakina. Reflect ikuspegiak, orain arte metodologia parte hartzaileak dituen ezaugarriak betetzen ditu, prozesuan zehar aintzat hartuko diren beste hainbat zehaztasun erantsita. Ikuspegi metodologiko hori da Elhuyar Aholkularitzak Euskal Herriko hainbat udalerritan eta bestelako erakundetan erabili duen Plangintza Estrategiko ezberdinak aurrera eramateko. Lan egiteko ikuspegi berri hau 1993an sortu zen, El Salvadorren, Ugandan eta Bangladeshen egindako proiektu pilotuetan, Paulo Freire brasildar pedagogoaren ikuspegi psikosoziala eta DRPko (Diagnostico Rural Participativo) teknikak helduen alfabetatze prozesuetan elkarrekin aplikatu zirenean (Archer, 1997).

Lehenengo esperientzia horiek prozesu baten hasiera besterik ez ziren izan, ordutik gaur egunera, erabateko eboluzioa eta hazkundea izan baitu lan egiteko era honek, eta gaur egun Asia, Amerika, Afrika eta Europako 58 herrialdetan erabiltzen da.

Hego Ameriketako, hasierako esperientziak berriz aztertu ziren "Educación Popular" (EP) delakoaren praktikak eta parte hartzeko ikerketa (IAP) kontuan hartuta. Horren ondorioz, hausnarketatik ekintzetara pasatzeak indar berezia hartu zuen Hego Ameriketako RE esperientzietan.

Prozesuen perspektiba dialektiko horregatik eta errealitatea bera prozesu horien bidez aldatzeak hartzen duen garrantziagatik, Hego Ameriketako Reflect Ekintza izena hartu zuen.

Ikuspegia behin eta berriz aberastu da, eta perspektiba, teoria eta praktika desberdinen eraginez berregokitu egin da; izan ere, taldeek, esperientzia berriak egiten dituzten bakoitzean, haien praktika eta posizionamenduarekin aberasten dute.

RE (Reflect Ekintza), beraz, ikuspegi dinamikoa da, eta sortu zenetik, etengabe ari da aldatzen eta interesgarriak diren teoria eta praktiketatik ikasten. Prozesu honen abiapuntua pertsonak dira, ekintza eragiten, bideratzen edota egiten duten pertsonak, hain zuzen ere. Hortik abiatuta, gure errealitatea, bai gertukoa, baita estrukturala ere, "irakurri" egiten dugu. Poliki poliki, prozesua subjektibotasunean oinarriturik eraikiz joaten

da eta subjektibotasunaren sozializazioak taldearen posizionamendua dakar berekin.

Etengabeko joan etorri dialektikoan murgildurik, batetik, ekintza-hausnarketa- ekintza eta, bestetik, pertsona- taldea- pertsona, gure errealitate subjektibo eta objektiboa sistematizatu eta barneratzen goaz, eta pertsona eta talde bezala berriz posizionatzen gara. Prozesuaren kontrola parte-hartzaileek dute prozesuaren urrats guztietan.

RE ikuspegiarekin egindako prozesuek parte hartzaileen jabekuntza (empowerment) lortzen dute.

Ondoren REk dituen ezaugarriak zerrendatuko ditugu:

- Parte hartzea eragiten du. Pertsonak zerbait bizi dutenean, beraiena egiten dute (“jabetzen dira”) eta horrela inplikatu egiten dira.

- Bibentziala da. Norberaren bizipenetan oinarrituta aztertzen da egoera.

- Talde izaera sendotzen du. Horrela, taldea bera prozesuaren eragile izatea lortzen da. Pertsona bakoitzak bere espektatibak ditu eta garrantzitsua da taldearen dinamikan kontuan hartzea.

- Kalitatezko parte hartzea lortzeko lan eskema mailakatua da. Banakako lanetik hasita, talde txikitan eztabaidatu eta adosten da, eta, bukatzeko, denen artean berriz ere eztabaidatu eta adosten da.

- Bisuala da. Egoerak bisualki planteatzen dira errazago aztertu ahal izateko.

Denen artean eraikitako prozesua bideratzen du.

- Aldaketa eragiten du. Ekintzarekiko identifikazioak aurrera egitea dakar; taldeak berak proposatutakoa bultzatzen baita.

Laburbilduz, hau lortzen da:

Taldeko pertsonen esperientzietan oinarrituta eta parte hartzea eragiten duten zenbait teknika erabiliz, hausnarketarako bideak jarri eta aldaketarako ekintzak lantzeko oinarriak finkatzen dira.

Nikola Foroniren hitzetan, prozesu bakoitza ikasketa-prozesu indibiduala ez ezik kolektiboa ere bada. Prozesu horietan egiten diren urrats guztiek pertsona guztien parte hartzea lortu nahi dute. Taldearen errealitate eta egoera espezifikoaren azterketa kritikoa egiten da, betiere parte hartzen duten pertsonen esperientzietatik abiaturik. Horrela, azterketa kritiko autonomoak egiteko gaitasuna indartuz joaten da; bai norbanakoarena, baita talde osorena ere.

Errealitatearen azterketa era eta ikuspegi ezberdinetatik egiten da; batetik, kontuan izanda errealitate berbera oso modu ezberdinetan hauteman litekeela errealitate horri begiratzen dion subjektuaren arabera; eta, bestetik, errealitatea ez delako lineala, eta dimentsio bakarreko edozein azterketak ulermena eta aldatzeko gure gaitasuna murrizten dituelako.

6. Prozesuaren nondik-norakoak

Prozesuaren helburu orokorra:

Esteribarko herritar eta eragileen iritzia eta ekarpenak kontuan hartuta, datozen lau urteotarako Hizkuntza Normalizazio Plan Estrategikoa diseinatzea udaleko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean.

Helburu zehatzak:

- Esteribarko euskal komunitatea egituratzea, sendotzea eta trinkotzea.
- Euskararen aldeko sentsibilizazioa.
- Herritarren euskararen aldekotasuna areagotzea.
- Orain arte garatu diren ekintzen eragina baloratzea, ongi egindakoak identifikatzea eta hobetzekoak antzematea.
- Gizarte eragileak eta herritarrak euskararen egoeraz jabetzea eta hizkuntza ohiturez gogoeta egitea.
- Aurrera begira, Esteribarren euskararen erabilerak gora egiteko, aukerak eta bideak identifikatzea eta horren arabera, plan estrategikoaren ildo nagusiak adostasunez finkatzea.
- Herritarren eta udalaren artean elkarlanerako gune berriak zabaltzea eta parte hartzeko kultura sustatzea, euskararen Plan Estrategikoa diseinatzea herritarrak subjeto aktibo bihurtuz.

Nola egin dugu?

Lehendabiziko urratsa  Talde eragilea osatzea

Talde eragilearen osaketa hutsak lorpen handitzat har dezakegu, zalantzarik gabe. Izan ere, Esteribarrek dituen ezaugarriak kontuan hartuta, ez da makala euskararen inguruan Batzorde bat osatu izana. Zein dira, bada, ezaugarri horiek?

- Ibarreko herritarrak sakabanaturik bizi dira.
- Egitura sozial eskasa.
- Parte hartzerako ohitura txikia.
- Eragile gutxi.
- Euskaingintzarik ez.
- Iruñerria gertu egonik, herritarrek hiriburura jotzen dute, askotan ibarrean errotu gabe.

Arestian, aipatutako ezaugarriak aintzat hartuz, irudika dezakegu gune hori ez dutela berrogei lagunek osatzen, dozena batek baizik. Parte hartze mahai hori ondoko eragileek osatzen dute:

- Udal ordezkariak (euskera zinegotzia eta zenbaitetan alkatea ere)
- Zenbait Kontzejutako ordezkariak
- Eskualdeko eskola, dagoen bakarra

- Esteribarko Gazte Elkarteko ordezkariak
- Guraso Elkarteko ordezkariak
- Ibarrean sortu berria den Kultur Elkarteko ordezkariak
- Ollokiko Auzokideen Plataformako ordezkari bat.
- Euskara Teknikaria
- Zerbait herritar, maila pertsonalean parte hartu nahi izan dutenak

Esan bezala, kuantitatiboki Batzordea oso esanguratsua ez bada ere, alde kualitatibotik begiraturik, eta Esteribar ezaguturik, ibarreko eragile guztiak ordezkaturik daudela esan genezake. Halaber, aldagai ezberdinak hartu dira kontuan: adin ezberdinetako herritarrak, gizonezkoak eta emakumezkoak proportzio berean, ibarreko herri ezberdinetako herritarrak, herri txikietan zein handiagotan bizi direnak, gurasoak... Ezin uka parte hartzaile kopuruari dagokionez, ez dugula aurrean tamaina handiko prozesu bat baina arestian esan bezala, Esteribarko hainbat ezaugarri aintzat hartuz, ezin dugu prozesuak duen balio kualitatiboa gutxietsi.

Azpitaldeak egiteko adina pertsona ez dagoenez, parte hartzaile guztiek esparru guztiak landuko dituzte, hau da ez dugu planteatu talde edo mahai sektoralen osaketa.

1. Lan saioa ➡
 - Prozesuaren aurkezpena.
 - Norberaren bizipenak: *Ni eta euskara* ariketa
 - Prozesuak zein baliotan oinarritu behar duen zehaztea eta adostea.
- 2.Lan saioa ➡
 - 1. Saioaren laburpena.
 - Taldearen kohesioa lantzeko xedearekin, norberak haurtzaroan edo gaztaroan euskerarekin bizitutako gertakizunen bat azaltzea.
 - Diagnostikoa. Denon artean, hasieran talde txikietan eta gero talde handian, AMIA matriza osatu. Aurretik, galdetegi bat landu zen.
 - SHAIL mementoa (Sentimenduak, hausnarketa, ikasitakoa eta lanarekin duen lotura)
- 3.Lan saioa ➡
 - Aurreko saioaren diagnostikoa osatu.
 - Plangintza estrategikoaren diseinuari ekin: Hizkuntzaren jabekuntza- Esparruen diagnostikoa, helburuak eta ekintza zehatzak proposatu.
 - SHAIL mementoa.
- 4.Lan saioa ➡
 - Plangintzaren diseinuarekin jarraitu ondoko esparruak landuz:administrazioa eta kirola eta aisia.

Egutegi arazoak direla eta, eta sakontze egitasmoaren epea errespetatzeko, ez dugu denborarik izan Batzordean esparru guztiak lantzeko. Saioetan lantzeko aukerarik izan ez dugun kasuetan, teknikariak berak garatu ditu eta prozesuaren parte hartzaile guztiei helarazi zaizkie eta ekarpenak egiteko aukera eman.

7.ESTERIBAR

Esteribar gaur egun

Egun, Esteribarko Udaleko oraingo egoera honako hau da:

Esteribarko Udalean, 2015.ean gertatutako aldaketa politikoaren ondoren, pentsatzekoa da hizkuntza normalizaziorako borondatea badela. Azpimarratzekoa da agintean dagoen taldea osatzen duten zinegotzi guztiak, Alkatea barne, euskaldunak direla. Zalantzarik gabe askoz zailagoa izanen da euskalduna ez den norbait normalizazioa bultzatzea. Borondatea ez ezik, bitartekoak ere behar dira hizkuntza politika egokia egiteko:

a) Legezko babesa. Jakina denez, 1986/15 Vascuenceren legeak Nafarroa hiru eremutan banatzen du hizkuntzari dagokionez: eremu euskalduna, mistoa eta eremu ez euskalduna. Zonifikazio horri erreparatuta, Esteribar eremu euskaldunean dago. Eremu horretan egoteak zenbait hizkuntza eskubide aitortzen ditu. Bestetik garrantzi handia du udalerri mailako euskara sustatzeko Ordenantza izateak. Esteribarko Udalak 2015eko maiatzean onetsi zuen berea.

b) Baliabide politikoak: normalizazio linguistikoa legealdiaren agendan sarturik egon behar da. Legealdi honetako agintariek, Udalak bestelako gaiei eskaintzen dizkion arreta eta borondate politikoa eskaintzeko konpromisoa hartu dute.

c) Baliabide teknikoak. Euskararen normalizazioan eragiteko, garrantzitsua da gaian ezagutza izatea eta teknikariek ekarpen handia egin dezakete. Esteribarko Udaleko Euskara Zerbitzuan teknikari bat ari da lanean %75eko lanaldian.

d) Baliabide ekonomikoak. Euskararen normalizazioak ezinbestean, baliabide ekonomikoak behar ditu. Munduko inongo hizkuntzak ez du normalizazio maila egokia erdietsi horretan dirua inbertitu gabe. Esan beharra dago, Esteribarko Udalerrriak dituen ezaugarriak eta biztanle kopurua kontuan hartuta, euskararen normalizaziorako bideratutako aurrekontua duina dela, proportzioan, Nafarroako udalerri esanguratsu askorena baino handiagoa.

e) Herri gogoia. Gizarteak euskararen normalizazio prozesuan protagonista garrantzitsuenetako izan behar du eta horretarako herri mugimenduen eta erakundeen arteko elkarlana bultzatu beharra dago, bakoitzari bere lekua onartuz. Horrek ekarriko du hizkuntza komunitatearen trinkotzea, lehen esan bezala, prozesu honen helburuetako bat Esteribarren.

Txepetxen hitzetara ekarriz normalizaziorako beharrezkoa den beste baldintza bat *izateko nahia da*. Hau pertsonengandik komunitatera eta

komunitatetik pertsonengana doa. Izateko nahia kontzeptu zehatza bat da Txepetxen teorian: "la actitud que genera en el hablante individual una motivación que le induce a hacer él mismo algo por su idioma, en lugar de esperar que otros lo hagan por él. Cuando esta actitud existe en un número suficiente de hablantes, está presente también en la comunidad lingüística" (Sanchez Carrión, 1987,233) . Izateko nahia da, nahikotasun maila bat lortuz gero, hizkuntza komunitatearen birraktibazioa eragiten duena (Sanchez Carrión, 1999,284). Izateko nahiak hiru osagai ditu:

1. Norbanakoen baikortasun kritikoa
2. Ahalegin pertsonal eta kolektiboa
3. Ahalegin horien balioa sozialki eta pertsonalki aitortuak izatea

Hortaz, Txepetxen iritziz, normalizazioa hasten da hizkuntza komunitateak jadanik artikulatuta balego bezala funtzionatzen duenean:

"... la normalización consiste en que los euskaldunes se pongan a funcionar ipso facto a partir del momento preciso en que, compartiendo el diagnóstico de la situación y la solución, deciden hacerlo como si psicológica y socialmente la comunidad lingüística ya estuviera articulada" (ibib., 302)

Eta lehenengo urratsa, esan bezala, gune sinbolikoaren nuklearizazioa da:

..." el primer paso es la nuclearización del espacio simbólico, que se cohesiona cuando articula una nueva información...una nueva interrelación y un proyecto que puede funcionar "como si" la comunidad estuviera articulada, porque él mismo se ha articulado como primer embrión de esa comunidad" (ibid.,303)

Txepetxen hitz horietan ikusten dut islaturik Esteribarko euskal komunitatea. Izan ere, erabat egituraturik egon gabe funtzionatzen hasi da jada artikulaturik egongo bailitzan. Komunitatearen hastapena dela esan genezake. Proiektu komun bat, gurean normalizazio plan estrategikoaren diseinua eta garapena, elkarrekin osatu nahiak, izateko nahia dakar berarekin, hizkuntza komunitatearen aktibazioa, alegia.

7.1. DIAGNOSTIKOA

Orain, Esteribarko euskeraren egoeraren diagnostikoa aurkeztuko dugu: datu kuantitatiboak zein kualitatiboak . Datu orokorrak eta Esteribarren normalizazioari begira esanguratsuak diren zenbait esparruri dagozkionak. Ondoren, AMIA teknikaren bitartez, herritarrekin egindako lan-saioetatik jasotako ekarpenekin osatutako euskeraren egoeraren diagnostiko orokorraren berri emanen dugu.

7.1.1.Euskara Zerbitzua

2016ko aurrekontua	51.000€
Baliabide pertsonalak	Teknikari bat %75eko lanaldian

7.1.2. Biztanleria datuak

Biztanle kopurua herriz herri. 2015eko datuak dira.

Herria	Biztanleak	Herria	Biztanleak
Antxoritz*	24	Osteritz	12
Eugi*	380	Setoain	7
Inbuluzketa*	41	Urtasun	38
Iragi*	23	Usetxi	7
Larrasoaña*	137	Zuriain	74
Saigots*	78	Agorreta	32
Sarasibar*	38	Eskirotz	8
Urdaitz*	110	Gendulain	8
Zabaldika*	38	Idoi	11
Zubiri*	443	Ilarratz	18
Akerreta	11	Ilurdotz	67
Leranotz	16	Irotz	35
Olloki	1003	Irure	5
		Biztanleak guztira	2685

*Herri hauek kontzejuak dira.

Biztanleria datuak adinaren arabera.

2015.urtea		
Biztanleria guztira		2685
	<19urte	%25.25
	20< 65 urte	%61.93
	< 65 urte	%12.81
	Atzerritarrak guztira	%3.5

7.1.3. Datu soziolinguistikoak.

Esan dezakegu XX.mendera arte, herenegun arte alegia, Esteribar eremu erabat euskalduna izan dela, herritar gehien gehienak euskaraz mintzo baitziren hegoaldeko goi nafarreraz. XX. mendearen lehenengo erdi aldean, euskera galdu egin zen Esteribarko herri askotan eta egun, bertako euskalkia ezagutzen duten hogeit bat herritar gelditzen dira, iparraldeko herrietan, Eugin eta Iragin batez ere.

Irakaskuntzari esker, euskara berreskuratze prozesuan dagoela esan dezakegu, geroxeago ikusiko dugun moduan, haur gehienek D ereduan ikasten baitute.


2016.urtean, Esteribarko Udalak ibarrean ikerketa soziolinguistikoa egiteko erabakia hartu du, Esteribarko ezagutzaren argazki zuzena ateratzea ahalbidetuko diguna. Izan ere, gaur egun ditugun datuen fidagarritasuna zalantzan jartzekoa da: azken datu *fidagarriak* 2001ekoak dira, 2011eko erroldak Nafarroako Gobernuak lagin batetik abiatu egin du eta ez unibertsoa osoa harturik aurreko erroldetan bezala. Gainera, 5000 biztanletik beherako udalerrietan, akats tarte dela medio, fidagarritasunak behera egiten du.

Tamalez, aurtan egitekoa den ikerketa soziolinguistikoa uda ondoren egingen da. Beraz, une honetan, eta besterik ezean, esku artean ditugun datuekin konformatu beharra dugu.

Hauexek dira gaur egun baliatzen ahal ditugun datuak:

	1991	2001	2011
Euskaldunak	%10.41	%14.86	%17.96
Ia euskaldunak	%8.80	%12.85	%15.79
Erdaldunak	%79.58	%72.29	%63.55

Datu soziolinguistikoak 2011



*Esan bezala, 2011ko datuak lagin batetik ateratakoak dira. Beraz, tentuz begiratzekoak dira, estimaziotzat hartu beharko genituzke. Argi ondorioztatzen ahal dugu, ordea, ezagutzak gora egin duela eta joera goranzkoa dela, euskaldun kopurua gero eta handiagoa dela, alegia.

Ez dugu erabilera daturik ezagutzen.


7.1.4. Zenbait esparruren diagnostikoa.

Irakaskuntza

Esteribarren eskualdeko eskola publikoa dago, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen dituena. A eta D ereduak eskaintzen dira bertan. Ibarreko haur gehien gehienek, Ollokikoak salbu, bertan ikasten dute. Hala ere, Iruñerria hain gertu egonik, badira hango itunpeko ikastetxe joaten direnak. Ollokiko haurrak Iruñerriko ikastetxeetara joan ohi dira, publiko zein itunpekoetara, hizkuntza eredu ezberdinetara. Oso zaila zaigu Ollokiko haurren matrikulazio daturik ezagutzea, hutsune handia dugu horretan.

Bigarren Hezkuntza, ibarretik kanpo ikasten dute, Atarrabiako institutuan, gehien gehienak. DBH Atarrabiako institutuan ikasten dute eta Batxilergoa egitera Burlatako Askatasuna institutura joaten dira. Bietan A, D eta G ereduak eskaintzen dira.


Matrikulazioa D ereduan eskualdeko Xabier Zubiri ikastetxean



Haur Eskola

Esteribarren, 0-3 urte bitarteko aldirako Udal Haur Eskola dago, Ollokin. 2011-2012 ikasturteaz geroztik, bi hizkuntza eredu eskaintzen dira: gaztelania eta euskara.

Hauexek dira matrikulazio datuak, hizkuntza ereduaren arabera, azkeneko ikasturteetan:



Grafikoan ikus dezakegunez aldakorrak dira bi ereduetan izandako matrikulazio datuak. Esan beharra dago euskarazko ereduan ez dela guk nahi adina haur matrikulatzen.

Orreaga Musika Eskola

Esteribarren Orreaga Musika Eskola dago. Zenbait Udalen ardurapean dagoen eskola da (Esteribar, Erroibar, Aezkoa, Berriobeti), haren kudeaketa Patronatu baten bitartez egiten da. Orreaga Musika Eskolan ez da ikasketak euskeraz egiteko aukera eskaintzen. Zenbait irakasle euskaldunak dira eta horien borondatearen esku gelditzen da euskaraz egitea ala ez.

Irakaskuntzaren alorrean egindakoak

- Matrikulazio garaian, hurrengo ikasturtean eskolaratu behar diren haurren gurasoei eskutitza bidali D ereduan matrikulatzera aholkatzeko.
- Seme-alabak eskolaratu behar dituzten gurasoei zuzendutako hitzaldiak elebitasunaren inguruan.
- Euskara ez dakiten gurasoei zuzendutako tailerra etxeko lanetan seme-alabei laguntzeko baliabideak eskaintzeko.
- Euskararen erabilera areagotzeko irakasleentzako trebakuntza.

Helduen Euskalduntzea

Esteribarren, ez dago euskaltegirik. Azkeneko bost ikasturteetan, Esteribarko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, helduei zuzendutako euskara klaseak antolatu izan ditu. Egun, B2 mailan ari den talde bakarra dago, 7 ikaslek osatua.

Nafarroako Gobernuaren Zubiarte euskaltegi publikoa Uharten dago, Esteribartik oso gertu. Euskara ikasi nahi duten heldu gehienek euskaltegi horretara jotzen dute. 2015/2016 hogeitaheldu ari dira Zubiarte euskaltegian euskara ikasten.

2015eko deialdian 14 herritarrek beka jaso zuten euskara ikasteko.

Helduen Euskalduntzearen alorrean egindakoak

- Nafarroako gainerako Euskara Zerbitzuekin elkarlanean, matrikulazioa sustatzeko kanpaina.
- Nafarroako gainerako Euskara Zerbitzuekin elkarlanean, euskara ikasten ari diren eta euskaldunentzako Elaide Sare Soziala sortu.
- Euskara klaseak antolatu Esteribarren.
- Euskara ikasleei begirako jarduera osagarriak antolatu.
- Euskara ikasteko bekak eman.
- Mintza taldea sortu.

Aisialdia, Kirola

Kirol arloan egiten den eskaintza guztia gazteleraz da. Euskaren erabilera kirol arloan entrenatzaile eta begiraleen borondatearen esku gelditzen da. Kirol arloan orain arte, ez da euskararen erabilera sustatzeko deus ere programatu.

Euskara Zerbitzuak antolatutako jarduerari esker euskararen presentzia haurren aisialdian pisuzkoa dela esan genezake, ez ordea gazte eta helduei begirako eskaintzan.

Udalak antolatzen dituen euskarazko aisialdi ekimenak haurrentzat	%70
Udalak antolatzen dituen euskarazko aisialdi ekimenak helduentzat	0

Alor honetan egindakoak

- Hurrei zuzendutako tailerrak eta jarduerak asteburuetan: sukaldaritza ikastaroak, esku-lanak, dantza...
- Ikastetxeko eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz antolatzeko diru laguntzak eman.
- Euskarazko udalekuetara joateko bekak eman.
- Ludotekan, euskararen presentzia bermatzeko jarduerak antolatu.
- Begiraleentzako trebakuntza saioak antolatu. (*Begiraleek asko egin dezakete*)
- Udan, herri tailerrak.
- Udan, igerilekuan aisialdi jarduera ludikoak antolatu.
- Ikasturte honetan nerabeentzako euskarazko aisialdi talde sortu da.

Administrazioa

Hizkuntza eskakizuna ezarria duten udal langile kopurua Esteribarko Udalean: 0

Hizkuntza eskakizuna ezarria duten udal langile kopurua Esteribarko Osasun Etxean : 0

Herritarrekin harremana duten udal langileen euskara maila:

3 langile	B2
2 langile	B1
2 langile	-

Legealdi honetan, 3 zinegotzi eta alkatea euskaldunak dira.

Herritarren hizkuntza udalarekin	
Idatziz euskeraz	% 15
Idatziz gazteleraz	% 75
Ahoz euskeraz	% 20
Ahoz gazteleraz	% 80
Euskararen erabilera	
Idatziz kanpo harremana eusk.	% 50
Idatziz barne harremana eusk.	%15
Ahoz kanpo harremanak eusk.	%15
Ahoz barne harremanak eusk.	%15

Alor honetan egindakoak

- Itzulpenak, batez ere jendaurreko dokumentazioa: iragarkiak, bandoak, kartelak, webgunea...
- Udal langileentzako trebakuntzaren planifikazioa.

Alor honetan, esan beharra dago zenbait udal langilek euskaraz aritzeko gaitasuna izan arren ez dutela erabiltzen.

Kulturgintza

Kultur programazioan antolatutako euskarazko kultur ekimenak	%80*
--	------

*Esteribarren antolatzen diren kultur ekitaldi gehienak euskaraz izaten dira. Horren atzean, ordea, ez dago normalizazio begirako helburu jakinik. Izan ere, ekitaldiak gazteleraz ez antolatzearen arrazoi nagusia horiek bideratzeko udal teknikaririk ez izatea da, ez besterik.

Alor honetan egindakoak

- Euskarazko ekitaldiak antolatu (antzerkia, ipuin kontalariak, zinea, bertsolaritza...)
- Haurrentzako ipuin lehiaketa.
- Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak.
- Eugiko liburutegian euskarazko aleak erosteko diru laguntza eman.
- Euskarazko produktuen katalogoaren banaketa.
- Bertsolaritza irakaskuntzan programa.
- Nafarroako gainerako Euskara Zerbitzuekin elkarlanean Etxepare Sarian parte hartu, album ilustratuak saritzeko ekimena.

7.1.5. AMIA

Euskara Batzordearen 2.lan saioan, Esteribar eta euskararen egoeraren diagnostiko orokorra egin genuen AMIA matriza erabiliz. Hona hemen emaitza. Dena den, Plangintzaren diseinuan esparruz esparruko ahuleziak ere agertuko dira, hobetu beharrekoak, alegia.

INDARGUNEAK	AUKERAK
• Euskara Zerbitzua dugu • Aurrekontu duina • Helduek euskera ikasteko aukera dute • D eredua eskolan • Eskolan lehentasuna ematen zaio D ereduari • Euskeraren Udal Ordenantza onetsia • Eskaintza kultural gehiena euskeraz egiten da. • Haur eta gazteen artean ezagutza handia, 25 urtetik beherako gehienek euskara dakite. • Nafarroako Euskara Zerbitzuen Sarearen elkarlana. • Gazte taldea sendoa Zubirin • Haur eta gazte populazio altua	• Gobernu aldaketa Nafarroan • Babes legala: Esteribar eremu euskaldunean kokaturik dago Euskararen legearen arabera. • Zerbitzuen gertutasuna • Udal berriak hizkuntza politika garatzeko borondatea dauka • Kulturgune bat eraikitzeko proiektua
AHULEZIAK	MEHATXUAK
• Sakabanaketa. • Indibidualismoa, kohesio falta • Herritarrak begirale pasiboak dira • Udalean, administrazioa ez da euskararen legea betetzen (Kontzejuak, osasun etxea...) • Musika Eskola gazteleraz • Helduen ezagutza falta. Heldu gutxi animatzen da ikastera. • Gurasoen kontzientzia falta • Haurrentzako erreferente euskaldun gutxi • Gazteek ez dute euskaraz hitz	• PAI • D ereduaren emaitzaren kalitatea ezbaian (lortzen den hizkuntza gaitasunari dagokionez)

egiten • Euskaldunak identifikatu gabe • Haur Eskolan haur gutxi euskeraz • Kirol arloan euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da. • Euskara ikasteko beharrik ez • Zenbait umek Iruñerrian ikasten dute, gazteleraz. • Parte hartzaile berberak ekimen guztietan, nekatzeko arriskua • Olloki: Esteribarko herritarrak dira baina oso zaila da horiengan eragitea. • Haur erdaldun gutxi dago baina izan badira, <i>bazterketaren</i> diskurtsoaren hedapena. • Zenbait hurrek euskaraz komunikatzeko duten gaitasun eskasa.	
---	--



8.Esteribarko Hizkuntza normalizazio Plan Estrategikoa 2016-2019

Helburu orokorra:

Esteribarren, esparru guztietan, euskara gehiago erabiltzea eta herritarrak euskararen aldeko subjektu aktibo bihurtzea.

Helburu zehatzak:

- Euskararen aldeko sentsibilizazioa.
- Herritarren euskararen aldeko jarrera hobetzea.
- Herritarrak euskararen alde aktibatzea.
- Euskal komunitatea trinkotzea.
- Euskara Zerbitzuaren eta herritarren arteko elkarlana sustatzea Normalizazio Plangintzaren parte sentiaraziz.

Helburu Estrategikoak	Esparruak	Sentsibilizazioa Motibazioa
Euskararen jabekuntza	Familia bidezko transmisioa	
	Helduen Euskalduntzea	
	Irakaskuntza	
Erabilera	Administrazioa	
	Kirola eta Aisialdia	
	Merkataritza	
Hizkuntzaren elikadura	Kulturgintza	
	Hedabideak	

Planaren helburu nagusia

Gero eta argiago dago egunko erronka nagusia hizkuntzaren erabilera dela. Esteribarren ere, erabilera daturik ez badugu ere, ausartzen ahal gara esatera okertzeko beldurrik gabe, erabilera ezagutza baino askoz apalagoa dela. Esteribarren, ezagutza datuek goranzko joera dute, belaunaldi berriak euskaldun datoz eta, ez ordea erabileraren maila berean.

Izan ere, erabilerak eta ezagutzak dituzten hazkunde-erritmo ezberdinek areagotu egin dute ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea. Hortaz, Esteribarren ere ezagutza datuak areagotzeko lan irmoa egin behar bada ere, plan honen helburu nagusia euskararen erabilera handitzea izanen da. Euskaldunak aktibatzea euskara ibarreko esparru ezberdinetan erabiltzeko urratsa eman dezaten. Helburu hori lortze aldera, euskal gizarte osoari dagokio euskara erabiltzeko aukerak eta guneak zaintzea eta sustatzea, eta zalantzarik gabe, herri administrazioek zeregin horretan laguntza eman behar dute.

Helburu estrategikoak

Planak hiru helburu estrategikori erantzuteko xede dauka: euskararen jabekuntza, erabilera eta hizkuntzaren elikadura. Halaber, bada beste helburu estrategiko bat esparrua edozein delarik ere zeharka lantzea proposatzen dena: sentsibilizazioa eta motibazioa.

1. Euskararen jabekuntza.

Euskararen jabekuntza edo eskuratze-prozesuan hiru esparru bereizten ditugu: familia bidezko transmisioa, euskarazko irakaskuntza eta helduen euskalduntzea.

Hizkuntza geroratzea gainerako helburu estrategiko guztien oinarrian dago. Gainera, Esteribarren laster gertaera berri baten aurrean egonen gara: eskolan euskaldundutako lehendabiziko gazteak aurki guraso izanen dira. Hortaz, ezinbestean belaunez belaun hizkuntza transmititzeko premia landu beharrean gaude.

Irakaskuntzan ere aldaketak gertatzen ari dira eta eredu elebidunetik eleaniztunera jauzi egin dugu. Nahitaez, ikaste prozesuaren ikuspegi komunikatiboa indartu beharko da eta eskolaren bidezko hizkuntzaren jabekuntza hasiera hasieratik erabilerarekin uztartu eta "ikasi bitartean erabili" edo "ikasteko erabili" ikuspegiak azpimarratu.

2. Euskararen erabilera.

Euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hiltun dentsitatea, hiltunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo aukerak, inguruan harreman sare euskalduna izatea, hau da, familian, lagunartean, herrian edo esparru formalagoetan solaskide euskaldunak izatea eta azkenik, hizkuntzarekiko atxikimendua.

Erabiliz zorrozten den tresna da hizkuntza horregatik zaindu egin behar dira familia eta eskolaz kanpoko jardunbideak: kultura, aisia, kirola, merkataritza, administrazioa, hedabideak.... Etorkizuneko erronka nagusia, euskara gaztelania bezain baliozkoa egitea da, bai kultura produktuen kontsumorako bai funtzio sinboliko eta afektiboetarako ere, hala nola

familiako harremanetarako, lagunarterako edo gizarte bizitzarako. Herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztiak bi hizkuntzetan emateko gaitasuna egonen dela bermatu behar da.

3.Euskararen elikadura.

Hizkuntza eroso eta erraz erabili nahi bada, elikatu egin behar da. Nola? Euskarazko edukien bidez eta horiek sortzen dituzten euskal eragileen bidez. Euskaldunak euskaraz behar ditu ereduak eta edukiak bere hizkuntza jarduna aberasteko. Euskararen erabilerak bi arlo nagusi ditu: sorkuntza eta kontsumoa. Beraz, lehenik eta behin euskarazko kalitatezko sorkuntza sustatu eta babestu behar da eta, horrekin batera, euskarazko kontsumoa indartu.

Euskaldun berriari, gainera, lagundu egin behar zaio hizkuntza-ezagutzak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen, horiek baitira adierazkortasuna elikatzen duten osagaiak.

Zehar-lerroak

Helburu estrategikotzat jotzen diren jabekuntza, erabilera eta elikaduraren ondoan badira haiek elikatzen dituzten beste jarduera mota batzuk ere, hizkuntza plangintza integral batek kontuan izan behar dituenak. Horiek artean daude euskararen aldeko motibazioa eta sentsibilizazioa.

Euskararen aldeko motibazioa zentzu zabalean ulertu behar da ikaste-prozesuarekin, batetik, eta erabilerarekin, bestetik zerikusia izan dezakeelako. Izan ere, motibazioa ezinbesteko balditza izaten baita hizkuntza ikasi zein erabiltzeko.

Erabileraren ikuspegitik, bestalde, motibazioaren eremuan sartzen dira euskara erabiltzeko baliabideak ematea hizkuntzen erabileraren inguruan gertatzen diren egoerak kudeatzeko: eredu onak zabaltzea, hizkuntza jakitetik erabiltzera dagoen jauzia egiten laguntzeko tresnak eskaintzea eta hizkuntzaren normalizazioaren esparruan lidergoa lantzea.

Helburu estrategiko bakoitzaren barnean, hainbat esparru aukeratu dira, Esteribarren horietan eragitea ezinbestekotzat jotzen baita.

Esparru bakoitzerako zenbait ekintza aurreikusi dira taula batean jaso direnak ondoko elementuekin batera:

Ahuleziak: Lehenago, esparruen diagnostiko laburra aurkeztu da, zenbait daturekin batera. Atal honetan, esparru bakoitzeko ahuleziak jasotzen dira, hobetu beharrekoak, alegia.

Helburuak: esparruan lortu nahi dena.

Ekintzak: helburuak lortzeko proposatzen diren egitasmo zehatzak.

Denboralizazioa: Planak iraungo duen aldian, hau da 2016tik 2019ra, zein urtetan aurreikusten den ekintza aurrera eramatea.

Eragileak: zehaztutako ekintza egikaritzeko orduan zer eragilek izanen duen ekintza aurrera eramateko ardura.

Adierazleak: planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteari begira, helburu bakoitza zenbateraino betetzen diren jakiteko tresnak behar dira. Hortaz, adierazleak aurreikusitako helburuen betetze-maila adieraziko digute.



HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA

1.Familia bidezko transmisioa

Ahuleziak

- Guraso euskaldunen erabilera eskasa.
- Guraso erdaldunek ere esparru honetan duten egitekoaren inguruan gogoeta egin beharra.
- Orain arte haurrei begira antolatutako jarduerak 4 urtetik gorakoentzat izan dira.
- Familia arloan ez zaio euskarari garrantzirik ematen.

Helburuak

- Haurrak jaio eta eskolatu bitarteko aldian (0-3), hizkuntza sozializazioa euskaraz egin dadin eragitea.
- Familiei gomendioak, baliabideak, tresnak... eskaintzea euskara gehiago erabiltzeko, etxean zein etxetik kanpo.
- Gurasoei, hizkuntzaren transmisioa ziurtatzeko eskola ez dela nahikoa ohartaraztea. Bakoitzaren funtzioa zein den argitzea.
- Gurasoak motibatzea garaia iristean seme-alabak D ereduan eskolaratu ditzaten.
- Guraso eta gurasogaien hizkuntza ohituren aldaketarako aholkuak ematea.
- Guraso eta haurrak euskara erabiltzeko guneak sortzea.

Ekintzak

- Ume jaioberrien gurasoei zuzendutako kanpainak, euskara erabiltzeko gomendioak eta baliabideak eskaini: *Duzun Onena* eta *Xaldun Kortin* argitalpenen banaketa opari txartelaren bidez.

Denboraralizazioa

2016	2017	2018	2019
✓	✓	✓	✓
✓	✓	✓	✓
✓	✓	✓	✓
	✓	✓	✓
	✓	✓	✓
	✓	✓	✓
	✓	✓	✓

- Eskolatu gabeko haurren gurasoei etxean euskara gehiago erabiltzeko gomendioak eta baliabideak eman : Kantu, ipuin edota jolasen inguruko tailerrak, ikastaroak...

- Ollokiko Haur Eskolan, Euskarazko produktuen katalogoaren paperezko edizioa banatu eta edizio digitala ezagutzera eman

- Hiru urtetik beherako haurrentzako jarduerak antolatzea: ludoteka ibiltaria ibarreko herri ezberdinetan.

- Haur eskolan, gurasoei zuzendutako sentsibilizazio saioa, hizkuntza erabileraren eta eleaniztasunaren inguruan.

- Gazteleraz aritzen diren bikote euskaldunen hizkuntza ohiturak aldatzeko tailerra.

- Ekitaldiak antolatu familia guztia aintzat harturik eskolatik kanpo.

Ebaluazio adierazleak

- Opari txartelaren bidez, Xaldun Kortin jasotzera datozen guraso kopurua.
- Antolatutako jardueretan izandako parte hartzaile kopurua.
- Ollokiko Haur Eskolan, euskarazko ereduan izandako matrikula kopurua.
- D ereduan izandako matrikula kopurua.
- Bikotekideen arteko erabilera datuak.

Eragileak

- Euskara Zerbitzua
- Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuen Sarea
- Ollokiko Haur Eskola
- Guraso Elkarteak

2.Helduen euskalduntzea

Ahuleziak

- Helduen motibazio eskasa ikas prozesuari heltzeko.
- Esteribarren bertan talde homogeenak osatzeko zailtasunak.

Helburuak

- Herritarren artean euskararen ezagutza handitzea.
- Euskalduntze-alfabetatzea unibertsalizatzea, prestigiatzea eta sustatzea.
- Euskalduntzetik erabilerara jauzia egitea eta euskaldunen sarea trinkotzea.
- Diru laguntzak emateko irizpidea Nafarroako gainerako udalekin bateratzea.
- AEK-ko edo IKA-ko euskaltegi sareek Esteribarren euskaltegia zabaltzea.

Ekintzak

Denboraralizazioa

	2016	2017	2018	2019
○ Nafarroako gainerako toki entitateekin elkarlanean, matrikulazio garaian, matrikulazioa sustatzeko kanpaina egitea: kartelak eta esku paperak, bideoa, prentsaurrekoa	✓	✓	✓	✓
○ Nafarroako gainerako toki entitateekin elkarlanean, euskara ikasten ari diren eta euskaldunentzako <i>Elaide</i> sare soziala Esteribarren ezagutarazteko aurkezpena antolatzea.	✓			
○ Eskolako gurasoei zuzenduriko motibazio kanpaina berezitua euskara ikastera anima daitezen.	✓	✓	✓	✓
○ Ibarrean mintza taldeak antolatzea.	✓	✓	✓	✓
○ Hizkuntza ez erabiltzearen ondorioz, jariotasuna galdu duten gazteentzako taldea osatzea, ahozכותasuna lantzeko.		✓	✓	✓
○ Euskara ikasteko diru laguntza deialdia argitaratu	✓	✓	✓	✓
○ AEK edo IKAr laguntza ematea euskaltegia Esteribarren zabaltzeko.		✓	✓	✓

Ebaluazio adierazleak

- Matrikulazio kopurua euskaltegietan.
- Eskatutako beka kopurua.
- Sortutako mintza talde kopurua
- Elaidek izandako Esteribarko erabiltzaile kopurua.

Eragileak

- Euskara Zerbitzua
- Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuen Sarea
- Euskaltegiak

3.Irakaskuntza

Ahuleziak

- Haurren zailtasunak euskarazko komunikazioari begira.
- Gurasoen motibaziorik gabeko euskarazko ereduaren hautua.

Helburuak

- Ikasleen komunikazio gaitasuna sendotzeko asmoz, ahozketasuna lantzeko jarduerak antolatzea.
- Gurasoei trebakuntza eskaini haurren ikas prozesuan bidaide izan daitezen.
- D ereduaren aldeko hautua egiteko sentiberatzea.
- Irakaskuntzaz gain, eskolako ekintza guztietarako euskara harremana bultzatu.
- Eskolaz kanpoko jarduerak euskeraz izan daitezen sustatzea.
- Ikasleei Esteribarko hizkera hitz egiten duten euskadun zaharren hizkera ezagutaraztea.
- Eskolan eta ibarrean normalizazioaren alde ari diren eragileekin elkarlana sustatzea.
- Musika Eskolan urratsak eman eskaintza euskeraz izan dadin.
- A ereduiko ikasleak euskarara erakartzea.

Ekintzak

- *Euskaraz Mintza* programa jolasgaraiari euskaraz jostatzeko tresnak eskaintzeko.

Denboraralizazioa

	2016	2017	2018	2019
○ <i>Euskaraz Mintza</i> programa jolasgaraiari euskaraz jostatzeko tresnak eskaintzeko.	✓	✓	✓	✓
○ <i>Bertsolaritza irakaskuntzan</i> programa ahozketasuna lantzeko.	✓	✓	✓	✓
○ Bertso Eskola sortzeko saiakera egin.				
○ Euskara jakin gabe seme-alabei laguntzeko tailerrak antolatu: ipuinak kontatzeko, etxeko lanetan laguntzeko...		✓	✓	✓
○ Nafarroako gainerako Euskara Zerbitzuekin elkarlanean kanpaina burutu.	✓	✓	✓	✓
○ Eleaniztasunaren aldeko sentsibilizazio hitzaldiak antolatu.				
○ Ikastetxerako Hizkuntza Proiektua prestatu eta egikaritu.		✓	✓	✓
○ Jangelako begiraleei euskararen erabilera areagotzeko trebakuntza eskaini.		✓	✓	✓
○ Eskolaz kanpoko jardueren antolatzeko diru laguntzak eman.	✓	✓	✓	✓
○ Eskolaz kanpoko jardueretan ari diren begiraleei trebakuntza eskaini : <i>Begiraleek asko egin dezakete</i>				
○ Bertako euskaldun zaharrek topaketak antolatu eskolan.		✓	✓	
○ Ikastetxeak Esteribarko Euskara Batzordean parte hartu.	✓	✓	✓	✓
○ Orreaga Musika Eskolako irakasleei trebakuntza eskaini irakasleak euskalduntzeko.		✓	✓	✓
○ A ereduiko ikasleentzako jarduerak antolatzea.		✓	✓	✓

Ebaluazio adierazleak

- Programatutako jarduerak egin diren ala ez.
- Parte hartzaile kopurua jardueretan.
- Matrikulazio kopurua D ereduari
- Erabilera neurketa hainbat gunetan: jantokia, jolastokia, pasabideak

Eragileak

- Euskara Zerbitzua
- Ikastetxea
- Guraso Elkartea
- Nafarroako Euskara Zerbitzuen Sarea

4.Administrazioa

Ahulguneak

- Udaleko Plantilla organikoko lanpostuek ez dute hizkuntza eskakizunik.
- Udalean ez dago euskararen erabilera arautzeko protokolorik.
- Zenbait Udal langilek herritarrekiko harremanak euskaraz egiteko gaitasuna izan arren ez da eskubide hori bermatzen.
- Zenbait arlotan ez da euskararen Ordenantza betetzen.

Helburuak

- Lanean euskaraz aritzeko gai diren langileek euskara era progresiboan areagotzeko neurriak.
- Herritarrek udalean euskara erabiltzeko sentiberatze mezuak helarazi.
- Hizkuntza paisaia euskararen erabilera bermatu.
- Udaleko kargu publikoek erabilerarako jarrera eraginkorra agertzea.
- Udal langileentzako prestakuntza iraunkorra sustatzea.
- Tresna eta aplikazio informatikoetan euskarearen erabilera sustatzea.
- Udalak egiten dituen zerbitzuen kontratazio guztietan hizkuntza beharrak betetzen direla bermatzea.
- Kontzejuetan euskararen erabilera sustatzea.
- Osasun Etxean zerbitzua euskaraz jasotzeko hautua bermatzea.

Ekintzak

- Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko protokoloa antolatu, langileei irizpideak eman.

Denboraralizazioa

2016	2017	2018	2019
------	------	------	------

- "Udalean ere euskaraz" bezalako kanpainak egin. Egutegien banaketa.

- Udalarekin euskarazko datu basea izan nahi duten langileen datu-basea osatu.

- Udalaren barruan zein kanpoan jartzen diren kartel, iragarki, jakinarazpen oro elebitan egin. Itzulpen protokoloa antolatu.

- Udal langileentzako euskalduntze plana antolatu eta horren jarraipena egin.

- Progresiboki, udal langileek erabiltzen dituzten aplikazio informatiko guztiak euskaraz jartzea.

- Udalak egiten dituen zerbitzuen kontratazio guztietan hizkuntza beharrak txertatzea eta horren jarraipena egitea.

- Kontzejuak euskara gehiago erabili dezaten baliabideak eman. Itzulpen zerbitzua eskaini.

- Osasun Etxearen euskararen egoeraren diagnostikoa egin eta hori hobetzeko bideari heldu (Nafarroako Gobernua)

Ebaluazio adierazleak

- Programatutako jarduerak egin diren ala ez.
- Erabilera neurketa udal etxean
- Eskatutako itzulpen kopurua.
- Ezarritako hizkuntza eskakizun kopurua.

Eragileak

- Euskara Zerbitzua
- Nafarroako Euskara Zerbitzuen Sarea

5. Asialdia eta Kirola

Ahulguneak

- Kiroldegiak eskainitako jarduera guztiak gazteleraz dira.
- Ibararte Kirol Taldean zein pilota eskolan euskarak ez du presentziarik, hainbat begirale euskaldunak izan arren.
- Ludotekako ekintzetan euskararen erabilera zalantzazkoa da tartean haur erdaldunak daudelako.
- Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak helduei begira egiten duen aisialdi eskaintza gaztelera hutsez izaten da.
- Udal Kiroldegiko helduentzako ikastaroetan euskarazko eskaintza bermatu.

Helburuak

- Kirol jardueretan euskararen presentzia eta erabilera bermatzea.
- Kirol taldeekin lankidetzak-hitzarmenak bultzatzea hizkuntza irizpideak txertatuta.
- Entrenatzaile eta begiraleei trebakuntza eskaini.
- Udalaren laguntzarekin antolatzen diren kirol ekitaldietan euskara komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea. (Orreaga-Zubiri, Zubiriko mendi lasterketa...)
- Ludotekan euskararen erabilera bermatu.
- Nerabeentzako aisialdi eskaintzan euskararen presentzia sustatu.
- Euskara gozamenarekin lotzea.
- Antolatzen diren jardueretako begirale eta emaileen euskara kalitatea bermatzea.
- Herrietako Elkarteetan euskararen presentzia bermatzea.
- Oloki, aisialdian euskararen presentzia bermatzea.

Ekintzak

- Kirol taldeei diru laguntzak emateko orduan, hizkuntza baldintzak ezarri, konpromisoak eskatu eta betearazi. Horren segimendua egin.
- Hizkuntza ezagutzari dagokionez, kirol taldeetako diagnostikoa egin.
- Kirol arloko entrenatzaileei begira: "Begiraleek asko egin dezakete tailerra antolatu"
- Udal Kiroldegian helduentzat jardueraren bat antolatu.
- Ludoteka berrantolatzeko plana egin, hizkuntza irizpideak kontuan hartuta.
- Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak helduei begira egiten duen aisialdi eskaintzan ikastaroren bat euskaraz antolatu.
- 12 eta 16 urte bitartekoentzako aisialdi taldea sortu asteburuetan elkartzeko.
- Begiraleen eta emaileen euskara kalitatea zaindu eta behar izatekotan trebakuntza eskaini.
- Herrietako Elkartei itzulpen zerbitzua eskaini.
- Olokin, udan herri tailerrak antolatu.

Denboraralizazioa

2016	2017	2018	2019
	✓	✓	✓
✓			
	✓	✓	
	✓	✓	✓
	✓	✓	✓
✓	✓	✓	✓
✓	✓	✓	✓
✓	✓	✓	✓
✓	✓	✓	✓

Ebaluazio adierazleak

- Programatutako jarduerak egin diren ala ez.
- Izen emate kopurua euskarazko jardueretan, kirolean nahiz aisialdian.
- Eskatutako itzulpen kopurua.

Eragileak

- Euskara Zerbitzua
- Udal Kiroldegia
- Herrietako Kultur Elkarteak

6.Merkataritza

Ahulguneak

- Hizkuntza paisaia ez da zaintzen merkataritza establezimenduetan.
- Merkataritza egoeraren diagnostikoa egin gabe dago.
- Erromesen eraginez ingelesa lehenesten da.

Helburuak

- Merkataritza establezimenduetako langileei euskara ikasteko prestakuntza erraztea.
- Herritar zein merkataritzako langileengan eragitea "euskara merkataritzara" bezalako ekimenen bidez.
- Merkataritza establezimenduetan euskararen erabilera bultzatu.
- Kanpoko errotulazioa euskaraz jartzeko erraztasunak eman.

Ekintzak

Denboralizazioa

	2016	2017	2018	2019
○ Merkataritza establezimenduetako langileei euskara ikasteko diru laguntzen berri ematea.		✓	✓	✓
○ Bisitak egin establezimenduetara eta laguntza eskaini: kartelak, itzulpen zerbitzua...		✓	✓	✓
○ Herritarrei begira, euskara erabiltzeko erraztasunak eman: kartelak jarri, produktuen izenak euskaratu...		✓		
○ Establezimenduetan kanpoko errotulazioa euskaraz jartzeko diru-laguntza deialdia argitaratu eta horren berri eman.		✓	✓	

Ebaluazio adierazleak

- Programatutako ekintzak egin diren ala ez.
- Hizkuntza paisaiaren neurketa
- Eskatutako itzulpen kopurua.

Eragileak

- Euskara Zerbitzua
- Merkataritza establezimenduak
- Euskara Batzordea

HIZKUNTZA ELIKADURA

7.KULTURGINTZA

Ahulguneak

- Parte hartze eskasa antolatutako kultur ekitaldietan
- Gazte eta helduentzako ekitaldi gutxi antolatzen da
- Gazteek ez dute euskarazko kultur kontsumorik egiten
- Kultur sorkuntzaren ezagutza eskasa
- Kultur Etxerik edo kultur ekitaldiak burutzeko egoitza egokirik ez izatea
- Liburutegirik ez ibarrean (Eugiko liburutegitxoak salbu)

Helburuak

- Euskal kultura bultzatzea eta indartzea
- Kultur eskaintza euskaraz bermatzea
- Gazte eta helduei begirako kultur eskaintza bermatzea.
- Bertsolaritza sustatzea
- Herrietako festetako egitarauan euskararen presentzia bermatzea
- Irakurzaletasuna euskaraz bultzatzea
- Euskarazko kultur produktuen kontsumoa bultzatzea

Ekintzak

Denboralizazioa

	2016	2017	2018	2019
○ Adin guztietarako kultur ekitaldiak antolatzea (antzerkia, kontzertuak, ipuin kontaketa...)	✓	✓	✓	✓
○ Bertso Eskola sortzeko saiakera egin	✓	✓	✓	✓
○ <i>Bertsolaritza irakaskuntza</i> programa Xabier Zubiri Eskolan	✓	✓	✓	✓
○ Esteribarko haurrentzako ipuin lehiaketa antolatu	✓	✓	✓	✓
○ Nafarroako gainerako Euskara Zerbitzuekin elkarlanean Etxepare Saria antolatu	✓	✓	✓	✓
○ Euskarazko produktuen katalogoa banatu.	✓	✓	✓	✓
○ Eskolan idazle eta ilustratzaileekin topaketak antolatu	✓	✓	✓	✓
○ Ibarreko Elkaratek eta Kontzejuek euskarazko ekitaldi kulturalak antolatzeko diru laguntzak eman	✓	✓	✓	✓
○ Eugiko liburutegitxoan euskarazko funtsa handitzeko diru laguntza eman	✓	✓	✓	✓
○ Udan igerilekuan <i>liburutan blai</i> ekimena	✓	✓	✓	✓

Ebaluazio adierazleak

- Antolatutako kultur ekitaldi kopurua
- Parte hartzaile kopurua ekitaldietan
- Liburu mailegu kopurua euskaraz Eugiko liburutegian

Eragileak

- Euskara Zerbitzua
- Kontzejuak
- Eugiko Liburutegia

8.Hedabideak

Ahuleziak

- Euskarazko hedabideak kontsumitzeko ohitura eskasa.
- Orain arte, euskarazko hedabideak jasotzeko zailtasunak: ETB, Euskal Herria Irratia...

Helburuak

- Udalaren eta euskarazko komunikabideen arteko lankidetzaren bultzatzea
- Euskarazko hedabideen hedapena eta erakargarritasuna sustatzea
- Paperezko egunkarietan euskararen presentzia areagotzeko neurriak hartzea
- Herritarrek sentsibilizatu euskarazko komunikabideak kontsumitzeko

Ekintzak

Denboralizazioa

	2016	2017	2018	2019
○ Udala eta Euskal Herria Irratiaren arteko hitzarmena egin.		✓	✓	✓
○ Udala eta ibarreko aldizkariaren arteko elkarlanerako aukerak identifikatu eta laguntzan eman.				
○ Euskal Herria Irratiaren egoeraren berri eman herritarrek entzuteko ohitura har dezaten.	✓	✓	✓	✓
○ Paperezko egunkarietan udaleko publizitatea jarri, euskeraz.	✓	✓	✓	✓
○ Euskarazko hedabideen eskaintzaren berri eman: aldizkariak. TB, teknologia berriak....		✓	✓	✓
○ Nafarroako gainerako Euskara Zerbitzuekin elkarlanean Ze Berri sentsibilizazio aldizkaria argitaratu.	✓	✓	✓	✓

Ebaluazio adierazleak

- Programatutako ekintzak egin diren ala ez.
- Paperezko prentsan jarritako iragarki kopurua

Eragileak

- Euskara Zerbitzua
- Ibarreko aldizkaria
- Nafarroako Euskara Zerbitzuen Sarea

9.Motibazioa eta Sentsibilizazioa

Ahuleziak

- Erabilera eskasa.

Helburuak

- Herritarren artean erabileraren aldeko jarrera lantzea.
- Udalak, euskararen aldeko ekimenak babestu, jarrera eredugarria erakutsiz.
- Erdaldunak euskarara erakartzea
- Ibarreko euskaldunzaharren hizkera zabaltzea

Ekintzak

- Gazteei zuzendutako *Zergatik ez?* Tailerra antolatu.
- Udazkenean egitekoa den ikerketa soziolinguistikoaren emaitzen aurkezpena egin eta sozializatu.
- Euskararen aldeko sentsibilizazioa helburu duen Euskararen Eguna antolatu.
- Udalak euskararen aldeko ekimenak lagundu (Korrika, Nafarroa Oinez...)
- Ondare ez materialaren hedapena.

Denboralizazioa

2016	2017	2018	2019
	✓		✓
✓	✓	✓	✓
✓	✓	✓	✓
	✓		

Ebaluazio adierazleak

- Programatutako ekintzak egin diren ala ez.
- Parte hartze kopurua ekimenetan

Eragileak

- Euskara Zerbitzua
- Euskara Batzordea



Bibliografia

MARTI, Joel eta REBOLLO, Oscar (2007). Eines per a la participació ciutadana. Participació Ciutadana: bases, mètodes i tècniques (versió actualitzada). Col·lecció Papers de Participació Ciutadana, Diputació de Barcelona, Centre per a la Participació Ciutadana Flor de Maig, Barcelona.

SANCHEZ CARRION, J.M. (1991): Un futuro para nuestro pasado
2.edizioa. Lizarra.

ARRUTI, IÑAKI. Hiznet. 5.1 ikasgaia

ARRUTI, IÑAKI (1991). Udalerría eta hizkuntz politika katalunian.BAT, 3-4,164.

MARKO, J. INAZIO. Hiznet. 4.1 ikasgaia

MARKO, J. INAZIO.(2010) Hizkuntza eraldaketa organizazioetan.
Esperientzia eta modelizazioa. UPV. EHU

ANDER-EGG, E. (1997): Cómo elaborar un proyecto.ICSA.Albacete.

COLLERETTE, P(1998): La planificación del cambio. Trillas. Mexico

PICHARDO, A (1993): Planificación y programación social.Ed. Humanitas.
Buenos Aires

MOSTEIRO ROBREDO, J.I. Hiznet 4.2. ikasgaia

Investigación- acción participativa. Documentación Social
aldizkaria.92.zk,1993

MARTINEZ, ZESAR. Hiznet 2.1 ikasgaia

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2001), EBPN udal eredu en arabera
hedapena. Lehentasunak. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.

ARROSPIDE, J.J.(2008) Lidergo eraldatzaileria. Eralan proiektua-
Soziolinguistika Klusterra.

FORONI, NICOLA.Elhuyar Aholkularitza. Eraldaketa-prozesuak zer,
zertarako, nork nola...

Reflect Ekintza Sarea

[http:// www.reflect-action.org](http://www.reflect-action.org)

Elhuyar Aholkularitza, Euskal Herria

[http:// www.elhuyaraholkularitza.eus](http://www.elhuyaraholkularitza.eus)